

Bidaurretako monastegia eta Juan Lopez de Lazarraga

Bidaurretako monastegia Trinitate Santisimoari dago eskeinita eta Olakua auzoan dago. Monastegi hau eraikitzeko dirua Juan Lopez de Lazarragak eta Maria de Ganboa emazteak jarri zuten. Juan Lopez de Lazarraga Oñatiko plazan dagoen Lazarraga jauregian jaio zen. Familia onekoa zenez, Oñatiko kondearekin eta Gaztelako erreinuko gortearekin harreman ona zuen.

Juan Lopezek lan garrantzitsua zuen, Gaztelako Errege Katolikoaren Kontadore Nagusia baitzen. Honez gain, Nafarroako Erreinuaren konkistan parte hartu zuen Gaztelarekin batera.



<http://www.oñatiturismo.eus/eu/listings/bidaurreta-monasterioa/>



Juan Lopez de Lazarragak Oñatiko kontearekin plazako San Migel elizan bere hilobia eraikitzeko baimena eskatu zion. Baina konteak ezetz erantzun zion. Hori ez zitzaion gustatu eta orduan Bidaurretako monastegia eraikitzea pentsatu zuen bertan bere hilobia egiteko. Hau horrela, 1510-1520. urteen artean eraiki zen eta monastegiari itsatsita konbentua du, klarisa eta klaustrazko mojena, hain zuzen. Gipuzkoako lehenengo konbentua izan zen. Maila artistikoan ere eraikin hau esanguratsua da.

